



Indian Gardens oasiaren berdea argi nabaritzen da. Coloradoren Kainoi Handiaren basamortuan. Bright Angel bidea, eta Indian Gardenetik Plateau Pointera doan bide eroso ere ikus daitezke.

COLORADOren kainoi handia

XABIER ELEXPE

NONBAIT Tanner Kainoiaren mendebaldera —inork ere ez daki zein lekutan zehazki— García López de Cárdenas izeneko soldadu espainiarrak deskubritu zuen lehen aldiz Colorado Ibaiaren Kainoi Handia, 1535. urtean. Francisco Vázquez de Coronadok bidalia zen paraje ezezagun haietara, urregorritzko zazpi hiri ospetsuak idoro zitzaizkion. Urrerik ez baina nahikoa sufrimendu aurkitu zu-

ten berak eta soldaduek, Tanner Kainoiaren inguruetan nondikbait behera abiatu zirenean, Colorado ibaira heltzeko ahaleginetan, oinez. Hiru egun eman zuten galdurik. «Naturaren maisulan» honek, «gure planetaren atalburu paregabe» honek, «Americako lehen natur mirari» honek, ez zien askotxorik nekarazi burua gizon haiei. Eta bueltatu egin ziren, urrea faltan botatzeko zutela.

Coloradoren Parke Nacionala

Hualapai, Havasupai, Paitute, Navajo eta Hopiak dira Kainoi Handiaren barnean ala inguruetan bizi diren bost tribuak. Hauetarik havasupaiak dira eskasena. Havasupai izenak «ur urdin eta berdearen jendea» esan nahi du. Kainoiaren barrualdean bizi diren bakarrak dira. Ugariak, ordea, Navajo Nazioa da, bere 200.000 pertsonekin inguru, Estatu Batuetako triburik handiena. Nava-

joek «Dineh» (euskaraz «jendea») deitzen diete beren buruei. Canadatik edo migratu ondoren, etorri berriak kontsideratzen dira Arizona aldera.

Kainoi Handiaren ertz berberan dago kokatuta Grand Canyon Village. Dendak, jateak, hotelak eta campingak. Ez zaizue zaila suertatuko hopi indioak ikustea hamaika salmahaitan, edozer saltzen, edo bazkariak zerbitzen, eta komunetan, turistoi gure zerak garbitzen. Herri xume, eder horretatik behe-

ra, eta beti Colorado ibaiaren bila, bidezidorak abiatzen dira, basamortuan zehar hautsa eta Arizonako eguzkia lagun. Batzu, urrearen sukarra zeneko denboretako pioneroek eginak, eta besteak, havasupai indioek, batek daki zertarako. Batetik bajatu, bestetik igo, ... makina bat konbinazio asmatu ahal duzue segun zenbat egunetarako zoazten. Segidan doakizuen ez da horietatik bat baino, hiruzpalau egunetako ibilaldi bat egiteko proposa deritzoguna.

Lehen etapa: Hermit Trail

1896. urtean New Yorkeko Daniel Hogan prospekzionatzaileak zabaldu zuen lehen aldiz bidezidor hau. Ondoren, 1913. urtean, Santa Fe Railroad lagunartean langileek hobetu zuten berau, Ralph Cameron zeritzon batek Bright Angel Trail bidezidorrean zehar Colorado ibaira jaisteko jarri zituen zergak ebitatzeko gogoaz. Santa Fe Railroaden jendeek kanpamendu bat eraiki zuten, bidezidorrak Colorado ibaiarekin topo egiten zuen inguruetan, Hermits Camp izenez ezaguna, zeina 1930. urteetan mando gainean paraje haietan zehar ausartzen ziren turistentzat gaua pasatzeko leku ezinhobea bilakatu bait zen. Egun, abandonaturik dago: rangeren postu bat dago haren ordez.

Hermit bidezidorrean hasierara heltzeko, West Rim Drive bidea hartu behar duzue Hermit Rest jartzen duen lekuraino, Gran Canyon Villagetik dozena bat kilometrotara inguru: autobus batek orduerdi egiten ditu bidaiak Hermit Restera udaldian. Hermit Resten zaretela, bide haustsu bat ibili beharko duzue mendebalderantz. Bidezidorra, bapatean, malkartsuki jaisten da, Waldron Trail bidezidorrekin topo egin arte, eta oso ondo markaturik dago. Ezkerraldeko daturikigun bide hau zen Hoganekegininiko jatorrizko bidea. Segidan, egin eskumatara (iparralderantz) eta segi beste kilometro bat Dripping Springs/Hermit Trail bidegurutzera. Hermit bidezidorretik behera abiatzeko, egin eskumatara (iparralderantz) Santa Maria Springerraino. Honainoko bideak, Hermit arroko ikuspegi ederrenetarikoa emango dizkizue. Hermits Campera heltzeko, jarraitu bidea Tonto Trailekin aurkitu arte. Kanpamendua bidegurutzetik bi kilometrotara dago kokatuta, hegoalderantz: kanpamenduen kokapena aurkitzeko, Tonto Trailean zehar jarraitu beharra dago, rangeren postutik aurrerago, Hermit Creek deritzon errekatxoaren uharkara. Oso ondo markaturik dagonon akanpatu. Bizikero eskatzen da indikaturiko tokietan soilik akanpatzea eta markatutako bidetik ibiltzea, inguruko bazterretan birlanaketa-proiektu bat bait dago martzan.

Hermit Rapids ikusteko aukera izango duzue, Hermit Creeken uharkasegitzen baduzue, beste 2-3 kilometrotan.

Hamalau kilometro dago Hermits Restetik Colorado ibaiaraino. Ura hiru leku hauetan aurki daiteke: Santa Maria Spring deritzon lekuan (baina oso eskasa), Hermit Creek errekan (Coli mikroorganismoek kutsaturik, maiz) eta Colorado ibaian bertan.

Bidea, oro har, ikusgarria da, ez dago galtzeko posibilitaterik. Beherantz zoaztela, Arizonako pionero haien imajina etorriko zaizue gogora, mando gainean urrea ez baina bestelako mineralak zekartzatela, bizar zuriak, ilea zuriago, «Clementine» kanta ahoan, eta Hermit Creek inguruko kanpamenduan lo-sakuetan sarturik zaudetela, isiltasun eta bakardade hartan, haien mozkorrak eta zaratak entzungo dituzue, oraindik ondoko Hermits Camp kanpamendu abandonatuan bailiren.


Bigarren etapa: Tonto Trail eta Indians Gardens

Arizonako eguzkiak ez du parkatzen normalean. Goizaldeko hirurak edo laurak aldeira, lo-sakuak utzi beharra dago. Tonto Trailek atzoko Hermit Trailekin egiten duen bidegurutzera egunsentia argitzen hasi baino lehen. Bestela, damutu egingo zaizue, seguru asko.

Hermit Trail/Tonto Trail bidegurutzetik Indians Gardenserako 20 kilometroak, Grand Canyon Parke Nazionalean dagoen ibilbidirik ospetsuena dira.

Tonto Trailean hiru kilometro ibili ondoren, basamortuan amildegi bat igeriko duzue, batek daki zerk zintzelatutako harrizko monumendu bat gordetzen duela. Eta amildegi honek inguratuta, monumenduaren magalean, kolore berdea ikusteko aukera izango duzue: Monument Creek errekatxoak, zentrimetro batzutako zabalera duela, bere aldamenetara garatu ditu zuhaitz txikiak, loreak, ... metro batzutako mundu bizia basamortu hil itzel hartan. Errekatxoak, etapa honetako hogeik kilometroetan ura edateko posibilitate bakarra, Colorado ibaiarako bere bidean bizitasuna zabaltzen du paraje bakarti eta ikusgarri hartan, piztiak erosago bizitzeko lekua. Hemen here, akanpatzeko lekuak oso ondo markaturik daude eta, ura, urte osoan dago eskuragarri errekatxoan. Berau jarraituz gero, Colorado ibaira jaitsi daiteke (Granite Rapids kanpamendura), baina gure ibilbidea Tonto Trailean zehar

doa. Tontok Monument Creeketik ateratzeko oso aldapa gogorrek gainditzen ditu, Arizonako eguzkia eta motxilaren zama gehien nabaritzen diren bide-zatia. hala ere, handik aurrera, Tonto bidea pixkanaka leundu egiten da: Cedar Spring igaro dugu lehen, gero bidezidorrak Salt Creekerara garmatza. Bost kilometro inguru izan dira Monument Creeketik, ez dugu inor topatu, ez dugu inor agurtzeko posibilitaterik izan, ura motxilakoa baino ex, eta bero dago (Cedar Spring eta Salt Creeken, udaldian, ez da izaten urik). Basamortua inoiz baino basamortuagoa iruditzen zaigu. Eta oraindik gogorrena falta zaigu: ia bederatzik kilometro Horn Creekerara. Berriro heltzen digu bideari, eta bapatean zerua goibeldu egiten da eta tantakada batzu hasi dira jaisten. Baina gure ilusioak berehala bukatzen dira, hamar segundutako eurialdia izan da. Gure ezkerretik, Colorado ibaia dugu ez dakigu zenbat metro beherago, eta eskuma aldetik West Rim Drivetik jaisten den amildegi izugarria. Azkenean lortu dugu Dana Butte mendia inguratzea eta gure aurrean somatzen dugu Horn Creeken uharka. Udaldian, hemen ere ez da izaten urik, baina bertan dauden zuhaitz txikiak babesean denda-kanpaina bat dago kokatuta, Indians Gardens kanpamenduan baimenik ez zuen bikote batek ipinia. Geuk ere atsedendalditxo hartzen dugu gerizpe apur hartan, eta jarraitu egiten dugu falta zaizkigun azken lau kilometroak egiteko. Bidea zelaia da, gure ezkerretara ez dugu Colorado ibaia ikusten jadanik, eta gure es-



Hermit Trail.
Sta. Maria Spring igaro ondoren.



Egilearen argazkiak.

Monument Creek.

kumataraz geratzen den «The Battle Ship» mendia inguratu ondoren, Indians Gardensetik Plateau Pointera doan bide erosora ailegatzen gara. Atzean gelditu dira Hermit Creeketik hogeitabi kilometroak.

Hirugarren etapa: Indians Gardensetik Grand Canyon Villagera

Atsegin badituzue bakardadea eta isiltasuna izaten direneko tokiak ez zaizue gustatuko Indian Gardens deritzon kanpamendua. Hain handiak izan dira han egindako aldaketak lehen prospekzionatzaileak 1890. urtean ailegatu zirenetik hona! Rangeren poztu iraunkorra dago, ura, camping txukun bat, abereak izateko korta bat, komunak, eta «Cottonwood» zuhaitzen gerizpea. Orain dela urte asko, havasupai indioek paraje hau lorategi bezala erabiltzen zuten eta hortik datorkio gaurko izena: «Indioen Lorategiak» (Indian Gardens). Hemendik pasatzen da Bright Angel Trail bidea, zalantzarik gabe Colorado ibaira jaisteko biderik erosoena; turistek gehien erabiltzen dutena.

Esan bezala, Bright Angel bidea, hasieran, havasupai indioek beren lorategietara heltzeko erabiltzen zuten bidezidorra baino ez zen. Prospekzionatzaileek hobetu egin zuten Havasupai bidea 1890. urteetan eta Cameron Trail izena jarri zioten. Izen honek jarraitu zuen, Coconino konterriak Ralph Cameroni bidearen kontrola kendu zion arte 1928. urtean. Orduantxe jarri zion Bright Angel Trail izen ofiziala.

Indians Gardensetik Colorado ibaira jaisteko, segi iparralderantz Garden Creek errekatxoaren ondotik, Devil's Corkscrew parajea zeharkatu eta jaitsi Pipe Creek errekatxoa jarraituz ibaiaren ondoan kokaturiko aterpe-raino, non River Trail bidezidorra hasi eta 3 Km-tan inguru Colorado ibaiaren hego-ertzetik abiatzen den, gero ezkerretara eginez eta ibaia zeharkatzen duen «Silver bridge» zubia pasatuz, Bright Angel kanpamendura ailegatzeko.

John Wesley Powell nagusia eta bere langileak lehen aldiz abiatu zirenean txalupatan Colorado ibaian, errekatxo baten ondoan gelditu ziren, laztantasunez Bright Angel izendatu zutena. Egurretan zetozen, aurreko egunetan galdu zituzten arraunak ordezkatzeko. Agian, Powellek lekune ezezagun hartan egin zuen aurkikuntzarik handiena ibaiaren ertzean kokaturiko indioen etxe-hondarrak izango ziren. Eta zera idatzi zuen: «Ezin izango dugu egundo azaldu zergaitik jende zahar hauek aukeratzen dituzten hain paraje helgaitzak beren etxeak eraikitze!». Powellek etxe-hondar haiek deskubritu zituenetik denbora gutxira, David Rust-ek kanpamendu bat jarri zuen bertan 1903. urtean kazari eta turistentzat. Ondoren, Fred Harvey entresak pentsatu zuen leku liluragarria zela eta 1921. urtean Mary Jane Colter arkitektuari agindua eman zion hotel-txo bat eraiki zezan, Phantom Ranch izendatua, eta gaur egun mendizaleek eta Canyon Villagetik mando gainean jaisten diren turistek gaua pasatzeko gehien erabiltzen duten lekua. Hala ere, Indians Gardensen

zaudetela, turistak mando gainean nola jaisten diren Phantom Ranchera ikusi nahi ez baduzue, isiltasuna eta bakardadea gustatzen zaizen mendizaleak bazarete, onena izango da zuentzat goizetik ateratzea losakuetatik eta abiatu ahalik eta lasterren Bright Angeletik gora Canyon Villageraino. Bestela, turisten mandoen hatsa sudurretatik sartuko zaizue, eta zabaltzen duten hatsa, ahotik. Eta, ez ahaztu, kainoietan, lehenengo jatsi egiten dela eta gero igo. Baldintza horietan, basamortuko eguzkia inoiz baino gogorrago irudi dakiguke. Indian Gardensetik Canyon Villageraino 8 Km inguru dago eta aldapa oso gogorra da batzutan. Igoera guztian zehar atsedena hartzeko aterpeak daude. Eta Two Mile Corner deritzon bidezatian, lehenagoko indioen pinturak ikusi ditzakezue.

AHOLKU PRAKTIKOAK

1. Colorado ibaiaren Kainobi Handira joateko modurik erosoena, Nevadako Las Vegas hiriko aireportuan abioi bat hartzea da. American West-ek egunero ditu hegaldiak Las Vegasetik Grand Canyon Village herritxoak duen aireportu txikira. Ez da oso garestia eta gainera, Kainoia abioitik ikusteko aukera izango duzue! Benetan merezi du! Greyhound-ek autobusak ditu Las Vegasetik (Nevada) eta Phoenix-etik (Arizona). Libreago ibili nahi dutenek beti dute kotxe bat alokatzeko aukera.

2. Kainoi Handian egunez ibiltzeko, ez da behar baimenik. Hala ere, gauren bat edo gehiago pasatu nahi baduzue, derrigorrezkoa izango zaizue «back country use permit» delako bat lortzea. Baimen hori aldean eraman beharra dago denbora guztian; adibide bezala, Hermits Trailek Tonto Trailekin topo egiten duen bideguretzetik zetorren. Bertan geunden guztien izenak hartu zizkigun eta gure baimenak arduraz arakatu zituen. Baimenik gabe izateak egundoko multak suposatu ahal ditu.

3. Baimen horiek lortzeko, aurretik idatzi behar duzue honako helbide hauetara:

A) Grand Canyon Village herritxoan kanpamendu bat baino ez dago:

MATHER CAMPGROUND

Erreserbak:

NATIONAL PARK SERVICE

1115 North First Street

PHOENIX AZ (USA)

edo

TICKETRON RESERVATION OFFICE

P.O. Box 2715

SAN FRANCISCO CA 94126 (USA)

B) Kainoira jatsi nahi baduzue eta bertan gauren bat pasatu, hona idatzi beharra duzue:

BACKCOUNTRY RESERVATION OFFICE

Grand Canyon National Park

P.O. Box 129

GRAND CANYON AZ 86023 (USA)

Ez pentsa bertara heldu eta bertan erreserbak lortzea! Ezinezkoa izango zaizue. Normalean, erreserbak 5 edo 6 hilabete lehenago egin beharra dago.

4. Grand Canyon Village herrian denetarik eros daiteke. Era guztietako zerbitzuak aurkituko dituzue eta dohaineko autobusek leku batetik bestera eramaten zaituztete. Hermits Rest delako parajera heltzeko, hau da, Hermit bidezidorraren hasierara heltzeko, heritik West Rim bidea hartu ahal duzue edo, hobe, ordu erdira ateratzen diren autobusetarik bat hartu dezakezue. Mendizaleentzako autobusberezi bat ateratzen da goizeko 6,30etan.

RESUMEN

EL Parque Nacional del Gran Cañón del Colorado, situado al norte del estado de Arizona, ofrece un sinfín de posibilidades para la práctica del trekking. El presente artículo trata de la excursión que M. Eugenia Iturbe y Xabier Elexpe realizaron a las profundidades del Cañón los días 24-27 de julio de 1989.

El recorrido se efectúa en tres etapas: el primer día se descienden 12 Km. por uno de los senderos más interesantes del Parque, Hermit Trail, atravesando lugares de enorme belleza. La segunda etapa consiste en recorrer durante algo más de 20 Km. el polvoriento y recóndito Tonto Trail. La tercera jornada se emplea en remontar, durante 8 km., la parte superior del empinado y masificado Bright Angel Trail. El itinerario permite así combinar lugares de una soledad a veces excesiva, con otros que han sufrido un fuerte desarrollo turístico. Además, el descenso a las aguas del río Colorado es factible desde varios puntos.

Dos millones de personas visitan anualmente este Parque, considerado por muchos como la mayor maravilla natural de América. Sin embargo, la mayoría restringe su visita a los lugares más turísticos: así los senderos del fondo del Cañón guardan celosamente rincones donde todavía se puede disfrutar de una soledad sobrecogedora, rodeados de un paisaje montañoso irrepetible.

Las reservas para acampar en el fondo del Cañón se deben solicitar 5 ó 6 meses antes. La temperatura, a la altura del río Colorado, y durante los meses de verano, puede rondar los 40°C. Y si no quieres vértelas con una serpiente cascabel, no metas la mano donde no puedas ver.

Tonto Trail. Salt Creekerantz.

5. Grand Canyon Village herriko «Bright Angel» hotelean kontsigna edo gordeleku bat duzue, beharrezkoa ez den materiallea uzteko. Kainoian, gero eta pisu gutxiago hobel!

6. Ertzetik ibaira doan edozein bidezidorretatik jaisteak suposatzen du Canadako ipar basoetatik Arizonako basamortura egun batean aldatzea, honek suposatzen duen aldaketa klimatologikoarekin. Udan, kainoi barruan, tenperatura 40° tara ailegatzen da.

7. Kainoi Handiaren erreka guztietako urek, eta Colorado ibaiarenek ere, tratatuak izan behar dute edan baino lehen, handiak bait dira haien Coli mikroorganismoen kopuruak.

8. Ibilialdi honi dagokionez, ur iraunkorra leku hauetan aurki daiteke: Hermits Rest, Santa Maria

Spring, Hermits Creek, Monument Creek, Indians Gardens.

Hala ere, udan ez da izaten urik leku hauetan: Cedar Spring, Salt Creek, Horn Creek.

9. Janariak hortzikarietatik urrun mantendu behar da, eta horretarako Hermit Creek, Monument Creek eta Indians Gardensen motxilak eskegitako barrak daude ipinita. Eta, sugeak? Ez itzazu ipini eskuak edo oinak ikusi ezin dituzun lekuetan eta ez duzu azertaz arduratu beharko!

10. Coloradoren Kainoi Handiko Parke Nazionalari buruzko orotariko argibideak eskuratzeko, idatzi ezazue helbide honetara:

CHIEF OF INTERPRETATION
VISITOR CENTER
Grand Canyon National Park
AZ 86023 (USA)

BIBLIOGRAFIA

Para recorrer el Gran Cañón recomendamos el libro "Hiking the Grand Canyon", de John Annerino, publicado en 1986 en San Francisco por Sierra Club Books.

